

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar taldeko legebiltzarkideak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, **IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERAK** egiten dio Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Politiken sailburuari, "Heldu programari" buruz:

ZIOA:

Ekainaren 18ko kontroleko osoko bilkuran hainbat azalpen eman zituen Enplegu eta Gizarte Politiken sailburu Gemma Zabaletak. Tartean adierazi zuen Heldu programa kudeatzen duen enpresaren kontratua uztailaren 15ean amaitzen dela eta, beraz, bertan behera geratuko dela zerbitzua, besteak beste, Zerbitzu Sozialen legeak ez duelako bere katalogoan era horretako zerbitzurik aurreikusten.

Horren aurrean, hurrengo galderak egiten dizkio:

IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERAK:

- Zenbat espediente tramitatu ditu Heldu zerbitzuak, bere sorreratik? Zehaztu, ze eratako espedienteak izan diren eta zein egoeratan dauden.
- Irekita dauden espedienteekin zer egin asmo du Sailak, zerbitzua eten ostean?
- Gaur egun Heldun lan egiten duten 23 beharginak zein egoeratan geratuko dira Sailak zerbitzua kudeatzen duen kontratua ez berritzean?
- Sailak erabaki du Helduk orain arte egin duen lana nola gauzatuko duen?
- Nola gauzatuko da aurrerantzean etorkinentzako aholkularitza juridiko eta legala?
- Sailburuak, kontroleko plenoan hirugarren sektorean ari diren erakundeak, Caritas, CEAR, Gurutze Gorria eta sindikatuak aipatu zituen etorkinekin lan egiten dutelako. Hori dela eta, saila jarri da erakunde horiekin, edo beste erakunde batzuekin, harremanetan uztailaren 15etik aurrera itxita egongo diren bulegoetan egiten den aholkularitza zerbitzu hori bere kargu har dezaten?
- Sailak egiten du etorkinei zuzendutako aholkularitza eta zerbitzuen koordinaziorik?

Gasteizen, 2010eko ekainaren 28an

Aintzane Ezenarro Egurbide

Aralar Legebiltzar-taldeko bozeramailea